

Filosofiaren Historia Historia de la Filosofía

EAU 2023 USE

www.ehu.eus



**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

Azterketa honek lau aukera ditu: A, B, C eta D.

Haietako bat hautatu behar duzu.

Ez ahaztu azterketako orrialde guztietan kodea jartzea.

A AUKERA

DESCARTES

“Horren ostean, ni zer naizen aztertu nuen arretaz, eta ikusi nuen irudika nezakeela ez neukala inolako **gorputzik** eta ez zegoela ni nengoen inolako mundurik, ez eta lekurik, baina ez nezakeela horregatik irudikatu ni ez nintzela; eta ikusi nuen, halaber, ni ez beste gauzen egiaz zalantza egin behar nuela pentsatze hutsetik ondorioztatzen zela, ebidenteki eta ziurtasunez ni zerbait nintzela, eta, ostera, bakarrik pentsatzeari utzita ez nuela izango batere arrazoirik **ni** banintzela uste izateko”.

Descartes: *Metodoaren diskurtsoa*

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUA ULERTZEA

1.1 Laburtu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).

1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak. (1 puntu) (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3. Descartesen pentsamenduan, zalantza metodikoa garatu ondoren, arrazoimenak “ni”-a ezartzen du, eta handik hasten da ezagutzaren bidea. Garatu ezazu disertazio labur bat gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanez. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz. (3 puntu) (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1 Ideia motak: adbentizioak edo erantsiak, faktizioak edo aizunak, eta jatorrizkoak (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.2 Pasioak eta askatasuna (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.3 Ilustrazioaren ezaugarri nagusiak. (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

B AUKERA

KANT

“Ilustrazioa da gizakia bere erruzko adingabetasunetik irtetea. Adingabetasuna, berriz, besteren gidaritzarik gabe nor bere adimenaz baliatzeko ezintasuna da. Norberaren erruzkoa da, adingabetasunaren zergatia ez baitatza adimenik ezean, nork bere buruaz besteren gidaritzarik gabe erabakitzeko gaitasun eta kuraiarik ezean baizik. Sapere aude! ‘Ausart zaitez zure adimenaz baliatzen!’ Horra hor ilustrazioaren goiburua”.

Kant: “Zer da *Ilustrazioa?*” galderari erantzuna

GALDERAK

1. MULTZOA. TESTUA ULERTZEA

1.1 Laburtu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).

1.2 Azaldu azpimarraturiko terminoak (1 puntu). (50-75 hitz termino bakoitzeko).

1.3. Kant-en iritziz, gizakiak, bere kontzientzia morala eraikitzerakoan, bere arrazoimenaz baliatu behar du. Ikusi dituzun filosofo guztiak ez dute tesi hori onartzen. Garatu ezazu disertazio labur bat gutxienez Kant-en tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste argudio bat emanet. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz (3 puntu). (200-300 hitz).

2. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

2.1 Kant eta Ilustrazioa: arrazoimenaren erabilera publikoa eta erabilera pribatua (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.2 Kant eta Ilustrazioa: autonomia morala. *Caesar non est supra grammaticos* (1,5 puntu). (Gehienez: 150 hitz).

2.3 Enpirismoren ezaugarri nagusiak (2 puntu). (Gehienez: 250 hitz).

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

C AUKERA

HANNAH ARENDT

“Gaizkiaren hutsalkeriaz ari naizenean, gertakari hutsen mailan ari naiz, juizioan oso nabarmena gertatu zen fenomeno bat azpimarratuz. Eichmann ez zen lago bat ez Macbeth bat, eta ezer ez zegoen haren burutik urrutia, Rikardo III.aren hitzetan, “gaiztagin gertatzea” baino. Bere aurreramendu pertsonala zaintzeko zuen prestasun harrigarria salbu, hark ez zeukan ezertarako motiborik. Eta prestasun hori, berez, ez zen inondik ere gaiztoa; Eichmannek ez zuen bere gainekoa hilko haren postua heredatzeko. Eichmannek, *besterik gabe*, eta lagunarteko hizkeran esateko, *ez zekien zertan ari zen*. Irudimen falta horrixe esker, hain zuzen ere, izan zen kapaz polizia-galdeketa gidatzen zuen aleman judu baten aurrean hilabeteak eta hilabeteak emateko, gizon hari bihotza zabalduz eta behin eta berriz agertuz nola SSetako lotinant koronelaren mailara baizik ez zen heldu, eta ez zela beraren errua izan mailaz igo ez bazuten. Teorian, nahiko ondo zekien zer zen hora dena, eta “gobernuak (gobernu naziak) agindutako balio-eskala berria” aipatu zuen auzitegiaren aurrean egin zuen azkeneko adierazpenean”.

Hannah Arendt, *Eichmann Jerusalemen, Post Scriptum*.

GALDERAK

I. MULTZOA. TESTUA ULERTZEA

- 1.1. Laburtu ezazu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. (1 puntu).
- 1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu). (50-75 hitz termino bakoitzeko).
- 1.3. Hannah Arendten ustez, “*edozein pertsona da krimenik izugarriena egiteko gai, bere ekintzei buruz hausnartzen ez badu*”. Garatu ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste kontrako beste argudio bat emanet. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz (200-300 hitz). (3 puntu).

II. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Totalitarismoen jatorria: gaitz absolutua (1,5 puntu). (Gehienez, 150 hitz).
- 2.2. *Vita activaren* esparruak: pribatua, publikoa eta soziala (1,5 puntu). (Gehienez, 150 hitz).
- 2.3. Ideia feministen garapena Ilustraziotik XXI. mendera. Simone de Beauvoirren lanaren ekarpen nagusiak (2 puntu). (Gehienez, 250 hitz).

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

D AUKERA

SIMONE DE BEAUVOIR

Hau da, drama ez da eremu sexual batean gertatzen; sexualitatea, gainera, sekula ez da izan ez destino baten definigarria, ez giza portaeren berezko giltza, baizik eta agerian uzten du egoera oso bat, egoera hori definitzen lagundu ondoren. **Sexuen borroka** ez da zuzenean ondorioztatzen gizonaren eta **emakumearen** anatomiatik. Egiaz, anatomia gogora ekartzen dugunean, segurutzat ematen dugu Ideien zero denboragabean guduan ari direla dudazko esentzia hauek: Femeninotasun betierekoa, Maskulinotasun betierekoa. Eta ez gara ohartzen borroka titaniko horrek bi molde guztiz desberdin dituela lurrean, zein bere garai historikoari dagokiona.

Simone de Beauvoir, *Bigarren Sexua* (Ondorioa).

GALDERAK

I. MULTZOA. TESTUA ULERTZEA

- 1.1. Laburtu ezazu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).
- 1.2. Azaldu itzazu azpimarraturiko terminoak (1 puntu). (50-75 hitz termino bakoitzeko).
- 1.3. Simone de Beauvoirren ustez, “ez da emakume jaiotzen, bilakatu egiten da”. Garatu ezazu disertazio labur bat, gutxienez tesiaren aldeko argudio bat eta haren kontrako beste kontrako beste argudio bat emanez. Ondoren, aurkez ezazu zure gogoeta pertsonala tesi horri buruz (200-300 hitz). (3 puntu).

II. MULTZOA. EDUKIAK ETA TESTUINGURUAN KOKATZEA

- 2.1. Filosofia existentialisten ideia nagusiak (1,5 puntu). (Gehienez, 150 hitz).
- 2.2. Zer da emakume izatea? “Emakumearen” kategoriaren problematizazioa (1,5 puntu). (Gehienez, 150 hitz).
- 2.3. Eichman Jerusalemen: gaizkiaren hutsalkeria (2 puntu). (Gehienez, 250 hitz).

**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

Este examen tiene cuatro opciones: A, B, C y D. Debes elegir una de ellas.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen

OPCIÓN A

DESCARTES

“Examiné después atentamente lo que yo era, y viendo que podía fingir que no tenía **cuerpo** alguno y que no había mundo ni lugar alguno en el que yo me encontrase, pero que no podía fingir por ello que no fuese, sino al contrario, por lo mismo que pensaba en dudar de la verdad de las otras, se seguía muy cierta y evidentemente que **yo** era”.

Descartes: *Discurso del método*

CUESTIONES

BLOQUE 1. COMPRENSIÓN DEL TEXTO

1.1 Resume el texto respetando las ideas contenidas en el mismo y la relación entre ellas. (1 punto).

1.2 Explica los términos subrayados. (1 punto) (50-75 palabras / término).

1.3 A juicio de Descartes, el conocimiento se inicia con el establecimiento de la existencia del yo tras un proceso de duda metódica. Expón al menos un argumento a favor de esta tesis cartesiana y al menos una objeción a la misma; expón finalmente tu reflexión personal al respecto. (3 puntos) (200-300 palabras).

BLOQUE 2. CONTENIDOS Y CONTEXTUALIZACIÓN

2.1 Clases de ideas: adventicias, facticias e innatas (1.5 puntos). (Máximo: 150 palabras).

2.2 Las pasiones y la libertad (1.5 puntos). (Máximo: 150 palabras).

2.3 Características generales de la Ilustración (2 puntos). (Máximo: 250 palabras).

KANT

“La ilustración es la liberación del hombre de su culpable incapacidad. La incapacidad significa la imposibilidad de servirse de su inteligencia sin la guía de otro. Esta incapacidad es culpable porque su causa no reside en la falta de inteligencia sino de decisión y valor para servirse por sí mismo de ella sin la **tutela** de otro. ***¡Sapere aude!*** Ten el valor de servirte de tu propia razón: he aquí el lema de la ilustración”.

Kant: *Respuesta a la pregunta ¿Qué es la ilustración?*

CUESTIONES

BLOQUE 1. COMPRENSIÓN DEL TEXTO

1.1 Resume el texto respetando las ideas contenidas en el mismo y la relación entre ellas (1 punto).

1.2 Explica los términos subrayados (1 punto). (50-75 palabras c/u).

1.3 A juicio de Kant, el hombre debe valerse de su propia razón a la hora de construir su conciencia moral. Esta tesis no ha sido compartida por todos los filósofos que has estudiado. Expón al menos un argumento a favor de esta tesis kantiana y al menos una objeción a la misma; expón finalmente tu reflexión personal al respecto (3 puntos). (200-300 palabras).

BLOQUE 2. CONTENIDOS Y CONTEXTUALIZACIÓN

2.1 Kant y la Ilustración: uso público y uso privado de la razón (1.5 puntos). (Máximo: 150 palabras).

2.2 Kant y la Ilustración: la autonomía moral. *Caesar non est supra gramaticos* (1.5 puntos) (Máximo: 150 palabras).

2.3 Características generales del empirismo (2 puntos) (Máximo: 250 palabras).

OPCIÓN C

HANNAH ARENDT

“Cuando hablo de la **banalidad del mal** lo hago solamente a un nivel estrictamente objetivo, y me limito a señalar un fenómeno que, en el curso del juicio, resultó evidente. Eichmann no era un Yago ni era un Macbeth, y nada pudo estar más lejos de sus intenciones que «resultar un villano», al decir de Ricardo III. Eichmann carecía de motivos, salvo aquellos demostrados por su extraordinaria diligencia en orden a su personal progreso. Y, en sí misma, tal diligencia no era criminal; Eichmann hubiera sido absolutamente incapaz de asesinar a su superior para heredar su cargo. Para expresarlo en palabras llanas, podemos decir que Eichmann, sencillamente, no supo jamás lo que se hacía. Y fue precisamente esta falta de imaginación lo que le permitió, en el curso de varios meses, estar frente al judío alemán encargado de efectuar el interrogatorio policial en Jerusalén, y hablarle con el corazón en la mano, explicándole una y otra vez las razones por las que tan solo pudo alcanzar el grado de teniente coronel de las SS, y que ninguna culpa tenía él de no haber sido ascendido a superiores rangos. Teóricamente, Eichmann sabía muy bien cuáles eran los problemas de fondo con que se enfrentaba, y en sus declaraciones posteriores ante el tribunal habló de «la nueva escala de valores prescrita por el **gobierno [nazi]**»”

Hannah Arendt, *Eichmann en Jerusalén, Post Scriptum.*

CUESTIONES

BLOQUE I: COMPRENSIÓN DEL TEXTO

- 1.1. Resume el texto respetando las ideas contenidas en el mismo y la relación entre ellas (1 punto).
- 1.2. Explica los términos subrayados (1 punto). (50-75 palabras / término).
- 1.3. Desarrolla una breve disertación a partir de la tesis “*cualquier persona es capaz del más horrendo crimen si no reflexiona sobre sus actos*”. Presenta al menos una idea a favor de la tesis y al menos una objeción a la misma. Finalmente, desarrolla tu reflexión personal ante la cuestión (200-300 palabras). (3 puntos).

BLOQUE II: CONTENIDOS Y CONTEXTUALIZACIÓN

- 2.1. El origen de los totalitarismos: el mal absoluto (1,5 puntos). (Máximo 150 palabras)

2.2. Los ámbitos de la *Vita Activa*: privado, público y social (1,5 puntos). (Máximo 150 palabras)

2.3. Las ideas feministas: de la Ilustración al siglo XXI. Principales aportaciones de Simone de Beauvoir (2 puntos). (Máximo: 250 palabras).



**FILOSOFIAREN
HISTORIA**

**HISTORIA DE LA
FILOSOFÍA**

OPCIÓN D

SIMONE DE BEAUVOIR

“Es decir, que el drama no se desarrolla sobre un plano sexual; la sexualidad, por otra parte, jamás se nos ha presentado como definidora de un destino, como portadora de la clave de las actitudes humanas, sino como expresión de la totalidad de una situación que contribuye a definir. La lucha de los sexos no está inmediatamente implicada en la anatomía del hombre y de la mujer. En verdad, cuando se la evoca, se da por supuesto que en el cielo intemporal de las Ideas se desarrolla una batalla entre esas esencias inciertas: el Eterno femenino y el Eterno masculino, y no se echa de ver que ese titánico combate reviste en la Tierra dos formas completamente diferentes, correspondientes a momentos históricos distintos”.

Simone de Beauvoir, “*El Segundo Sexo*”. Conclusión.

CUESTIONES

BLOQUE I: COMPRENSIÓN DEL TEXTO

- 1.1. Resume el texto respetando las ideas contenidas en el mismo y la relación entre ellas (1 punto).
- 1.2. Explica los términos subrayados (1 punto). (50-75 palabras / término).
- 1.3. Desarrolla una breve disertación a partir de la tesis “*No se nace mujer, llega una a serlo*”. Presenta al menos una idea a favor de la tesis y al menos una objeción a la misma. Finalmente, desarrolla tu reflexión personal ante la cuestión (200-300 palabras). (3 puntos).

BLOQUE II: CONTENIDOS Y CONTEXTUALIZACIÓN

- 2.1. Características fundamentales de las Filosofías de la Existencia. (1,5 puntos) (Máximo 150 palabras).
- 2.2. ¿Qué es ser mujer? Problematización de la categoría “mujer” (1,5 puntos). (Máximo 150 palabras).
- 2.3. Eichmann en Jerusalén: la banalidad del mal (2 puntos). (Máximo: 250 palabras).

**ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK**
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN**FILOSOFIAREN HISTORIA**

| | 1. BLOKEA. DESKRIBATZAILEAK | GEHIENEZKO NOTA |
|-------|--|-----------------|
| 1.1 | Ikasleak berari proposatutako testuaren atal batzuk kopiatu besterik ez du egiten, eta, laburpen gisa, testuan jasota dauden tesi eta ideiak adierazten ditu. | 0,25 |
| | Ikasleak testuaren ideia nagusia ondo adierazten du, hitzez hitz errepikatu gabe, baina ez ditu jasotzen testuan jasota dauden ideien multzoa ezta ideien arteko lotura ere. | 0,50 |
| | Ikasleak testuan adierazten den ideia nagusia ondo adierazten du, hitzez hitz errepikatu gabe, eta horrekin lotura duten ideiak aipatzen ditu. Laburpenaren adierazpena edo egitura, halere, ez dira egokiak. | 0,75 |
| | Ikasleak testuaren laburpena egiten du, bertan jasotako ideiak eta horien arteko lotura errespetatzen ditu, ez du hitzez hitz errepikatzen eta argi eta zehatz adierazten du dena. | 1 |
| 1.2.1 | Ikasleak ondo deskribatzen du azpimarratutako kontzeptua, hitzaren definizio orokorra (0,1), egileak zertarako erabiltzen duen (0,3) eta hitz horren eraginez sortzen den problematika (0,1) azalduz. | 0,5 |
| 1.2.2 | Ikasleak ondo deskribatzen du azpimarratutako kontzeptua, hitzaren definizio orokorra (0,1), egileak zertarako erabiltzen duen (0,3) eta hitz horren eraginez sortzen den problematika (0,1) azalduz. | 0,5 |
| 1.3. | Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen. | 0 |
| | Ikasleak mintzaldiaren gaiaz zenbait ideia garatzen ditu, baina garapena arruntegia da edo euskaririk edota argibiderik gabekoa. Ez du azaltzen iritzi pertsonal egokirik. | 1 |
| | Ikasleak testuan planteatzen den gai filosofikoa ulertzeta duela frogatzen du, eta arretaz aztertzen ditu ideiak eta argudioak garatzeko bi ikuspegi filosofiko. Adibideak egokiak dira, or ohar, eta nolabait erantzunaren euskarri izateko balio dute. Badago iritzi pertsonal egokien zantturen bat.. | 2 |
| | Ikasleak testuan planteatzen den gaia eraginkortasunez ulertzeta duela frogatzen du, eta arretaz aztertzen ditu gaiarekiko bi ikuspuntu filosofiko, eztabaida kritikoa eginez. Adibideak egokiak dira,. Iritzi pertsonala egokia da. | 3 |

CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

| | 2. BLOKEA. DESKRIBATZAILEAK | GEHIENEZKO NOTA |
|----------------|---|-----------------|
| | Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen. | 0 |
| 2.1 eta 2.2 | Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, eta eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta. | 0,5 |
| | Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eta eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera. Hala ere, autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik. | 0,75 |
| | Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, baina eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta. | 1 |
| | Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera eta autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenak aipatzen ditu, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik. | 1,5 |
| 2.3. | Ikasleak ez du hurrengo maila lortzen. | 0 |
| | Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, eta eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta. | 0,5 |
| | Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eta eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera. Hala ere, autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik. | 1 |
| | Ikasleak autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenen aipamen partzial soila egiten du, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik, baina eskasa da kontzeptu filosofikoen erabilera edo ideiak ez daude ondo ordenatuta.. | 1,5 |
| | Ikaslearen erantzunak hari egoki bati jarraitzen dio, azalpenak eta argudioak azaltzeko, eraginkorra da kontzeptu filosofikoen erabilera eta autorearen edo testuinguru historiko-filosofikoko ideia garrantzitsuenak aipatzen ditu, ideia horiek galderari erantzuteko aipagarriak izanik. | 2 |

**CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK****HISTORIA DE LA FILOSOFÍA**

| | BLOQUE 1. DESCRIPTORES | CALIFICACIÓN MÁXIMA |
|-------|---|---------------------|
| 1.1 | El alumno se limita a copiar los fragmentos del texto propuesto en que se expresa la tesis y las ideas contenidas en el texto como resumen del mismo. | 0,25 |
| | El alumno señala adecuadamente la idea central del texto evitando la repetición literal del mismo, pero no recoge el conjunto de las ideas contenidas en el mismo ni la relación existente entre las mismas | 0,50 |
| | El alumno señala adecuadamente la idea central del texto evitando la repetición literal del mismo y se refiere las ideas relacionadas con la misma, pero la expresión o la estructura del resumen no son adecuadas. | 0,75 |
| | El alumno resume el texto respetando las ideas contenidas en el mismo y la relación entre ellas evitando la repetición literal del mismo y expresándose con claridad y precisión. | 1 |
| 1.2.1 | El alumno describe adecuadamente el concepto subrayado: definición general del término (0,1), uso que le da el autor (0,3) y problemática que suscita el término subrayado (0,1). | 0,5 |
| 1.2.2 | El alumno describe adecuadamente el concepto subrayado: definición general del término (0,1), uso que le da el autor (0,3) y problemática que suscita el término subrayado (0,1). | 0,5 |
| 1.3. | El alumno no alcanza el siguiente nivel | 0 |
| | El alumno desarrolla algunas ideas sobre el tema de la disertación, pero el desarrollo es simple o se presenta sin apoyo o referencias. No hay una opinión personal pertinente. | 1 |
| | El alumno muestra comprensión de la cuestión filosófica que plantea el texto y explora dos enfoques filosóficos diferentes para desarrollar ideas y argumentos. Los ejemplos son en general apropiados y apoyan en cierta medida la respuesta. Hay alguna muestra de una opinión personal pertinente. | 2 |
| | El alumno muestra comprensión eficaz de la cuestión filosófica que plantea el texto y explora dos enfoques filosóficos diferentes respecto de la cuestión realizando una discusión crítica. Los ejemplos son apropiados. La opinión personal es pertinente. | 3 |

CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN
ZUENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

| | BLOQUE 2. DESCRIPTORES | CALIFICACIÓN MÁXIMA |
|-----------------|---|---------------------|
| | El alumno no alcanza el siguiente nivel | 0 |
| 2.1 y 2.2 | El alumno hace únicamente referencia parcial a las ideas importantes del autor o del contexto histórico filosófico relevantes para responder la pregunta y la utilización de los conceptos filosóficos es limitada o las ideas no están ordenadas adecuadamente. | 0,5 |
| | La respuesta del alumno sigue un hilo expositivo o argumental adecuado, utiliza eficazmente los conceptos filosóficos, pero hace únicamente referencia parcial a las ideas importantes del autor o del contexto histórico filosófico relevantes para responder la pregunta. | 0,75 |
| | El alumno hace referencia a las ideas más importantes del autor o del contexto histórico filosófico relevantes para responder la pregunta pero la utilización de los conceptos filosóficos es limitada o las ideas no están ordenadas adecuadamente. | 1 |
| | La respuesta del alumno sigue un hilo expositivo o argumental adecuado, utiliza eficazmente los conceptos filosóficos y se refiere a las ideas más importantes del autor o del contexto histórico o filosófico relevantes para responder a la pregunta correspondiente. | 1,5 |
| 2.3. | El alumno no alcanza el siguiente nivel | 0 |
| | El alumno hace únicamente referencia parcial a las ideas importantes del autor o del contexto histórico filosófico relevantes para responder la pregunta y la utilización de los conceptos filosóficos es limitada o las ideas no están ordenadas adecuadamente. | 0,5 |
| | La respuesta del alumno sigue un hilo expositivo o argumental adecuado, utiliza eficazmente los conceptos filosóficos, pero hace únicamente referencia parcial a las ideas importantes del autor o del contexto histórico filosófico relevantes para responder la pregunta. | 1 |
| | El alumno hace referencia a las ideas más importantes del autor o del contexto histórico filosófico relevantes para responder la pregunta pero la utilización de los conceptos filosóficos es limitada o las ideas no están ordenadas adecuadamente. | 1,5 |
| | La respuesta del alumno sigue un hilo expositivo o argumental adecuado, utiliza eficazmente los conceptos filosóficos y se refiere a las ideas más importantes del autor o del contexto histórico o filosófico relevantes para responder a la pregunta correspondiente. | 2 |